

**“Publikoaren erreferentziarik barik galduta egongo gara inprobisazio tartetan”**

**Gorka Ganso**  
Klowna • 12



**“Erosle kopurua handitu egin da; ea tokiko produktuak erosteko kontzientzia hori egonkortzen den aurrerantzean”**

**Kepa Agirregoikoa Etxebarria**  
Etxanoko ekoizlea • 11



## Bizikletari hautsa kentzeko sasoa

Itxialdiaren ondoren, trasteleketan ahaztuta zeuden bizikletak konpontzea erabaki dute askok, ariketa egiteko premiari erantzuteko. Bizikleta-dendetako biltegiak gainezka daude. Mendiko bizikletak dira gehienak, herri barruetan ibiltzeko ere egokiak direlako. • 8-9



**“Durangaldeko turismoari beste bultzada bat eman behar diogu”**

Jasone Gezuraga Garaiko landetxeko arduraduna da. Egun hauetan Bizkaitik irtetea, orokorrean, ezinezkoa denez, turista bizkaitarrak ditu aterpetxean apopilo. Durangaldeak turismoari eutsi gura badio, datorren urtea ondo prestatzeari ekin behar diola uste du. Industriatik galtzen den apurra beste leku batzuetan berreskuratut beharko dela dio; hala nola turismoan. • 6



**Zugaza zinema gaur zabalduko dute, aforo murriztuagaz**

**Durango** | Zinea aforoaren %33agaz zabalduko dute, gaurtik hasita. Zugazako arduradunek bezeroei gogorarazi diete maskara ipintzea derrigorra izango dela. Sarrerak 5 euro balioko du eta ateari ohi baino lehenago zabalduko dituzte, jende pilaketak saihesteko. • 2



**IURRETA**

Lanbide Heziketa

[www.iurretalhi.eus](http://www.iurretalhi.eus)  
idazkaritza@iurretalhi.eus  
Tel.: 944 66 88 00

### ERDI MAILA

- Administrazio Kudeaketa
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta
- Telekomunikazio Instalazioak

### GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Automozioa
- Mantentze Lan Elektronikoa
- Produzioaren Programazioa

**Euskaraz ikasi eta lan egin!**

**AURREMATRIKULA** Ekainaren 1etik 19ra



# Durangon, Berrizen eta Zornotzan bonuen kanpainak martxan ipini dituzte tokiko merkataritza bultzatzeko helburuagaz

Abadiñoko, Iurretako eta Zaldibarko udalak ere antzeko ekimenak lantzen ari dira herrietako komertzioari laguntzeko

## DURANGALDEA • J.G./E.H.

Koronabirusaren krisiak gogor kolpatu du tokiko merkataritza. Herrietako komertzioa sustatuz guran, eta sortu den kaltea arintzeko, hainbat udalek merkataritza-bonuen kanpainak martxan ipini dituzte Durangaldean. Durangoko Udalak hiru deskontu-bonu kanpaina egingo ditu 2020an zehar. Lehenengo kanpaina astelehenean abiatu zuten eta eguenerako agortuta zeuden bonuak. Durangarrek 10 euroan erosi dituzte, gero herriko dendetan 20 euroko erosketa egiteko. Gainerako 10 euroak Durangoko Udalak ipini ditu.

Bestalde, Berrizen, 'Bizi Berriz' lelopean, tokiko merkataritza suspertzeko kanpaina abiatuko dute ekainaren 8an. Berrizko Merkatarien Elkarteak eta Berrizko Udalak elkarlanean antolatuko dute egitasmoa. 2.400 bonu ipiniko dituzte salgai, kanpaina bitan, eta 45.000 euroko balioa

### Durangoko kanpaina astelehenean abiatu zuten eta eguenerako agortuta zeuden bonuak

izango dute guztira. Kanpainarako, [bizi.berriz.eus](http://bizi.berriz.eus) webgunea martxan ipini dute. Egitasmoan parte hartu gura duten dendariak izena eman dezakete bertan. Kanpaina zati bitan banatuko da. Lehenengo ekainaren 8an martxan ipiniko da, eta alarma egoeraren ondorioz itxita egon diren establezimenduei zuzenduta dago. Bigarrena udazkenean izango da eta establezimenduetan guztiei zuzenduta dago. Herri-



Goian, Durangoko bonuak banatzen. Behean, Estibaliz Martiartu zinegotzia eta Andoni Agirrebeitia Zornotzako alkatea kanpaina aurkezten.

tarrek webgunean bertan erosi ditzakete bonuak.

Zornotzako Udalak 285.000 euroko inbertsioa egingo du herriko ostalderari, dendei eta komertzioei laguntzeko. Erosleek 15 euroan eskuratu ahalko dute bonua gero herriko komertzioetan 20 euroko erosketa egiteko. Kanpainan parte hartzen duten herritarrek bonu bi erabili ahalko dituzte erosketa bakoitzean.

Amorebono kanpaina martxan ipintzen den bigarren aldia izango da. Abenduaren erdialdera arte

egongo da martxan. Iazko kanpainak 20.000 euroko inbertsioa izan zuten, baina aurtengo kanpainan nabarmen igo da inbertsio kopurua. Udalak 285.000 euro ipiniko ditu 57.000 erosketa bonu diruz la-

### Berrizen 2.400 bonu ipiniko dituzte salgai, kanpaina bitan, 45.000 euroko balioagaz guztira

guntzeko. Erosleek 15 euroan eskuratu ditzakete bonuak, gero herriko komertzioetan 20 euroko erosketa egiteko. Erosketa bakoitzean bonu bi erabili ahalko dira aldi berean. Kanpainan parte hartu gura duten negozioek izena eman beharko dute [sustapena@amorebieta.eus](mailto:sustapena@amorebieta.eus) helbidera idatzita edo Herritarren Arretarako Zerbitzuan jakinarazita. Kanpaina uda baino lehen hasiko dute. Bonuen erosleak zornotzarrak zein Zornotzatik kanpokoak izan daitezke.

## Durangoko Zugaza zinemak asteburu honetan zabalduko ditu ateak, aforoaren heren bategaz

Zinemako arduradunek sarrerak aurretik erreserbatzea gomendatzen dute, webgunean edo kanpoan duten makinan

## DURANGO • JONE GUENETXEA

Apurka-apurka, normaltasun berriari geroago eta negozio gehiago martxan ipintzen ari dira. Bigarren fase honetan, zinema-aretoek ere ateak zabaltzeko aukera dutenez, Zugaza zinemako arduradunek asteburu honetan berriro ere zabaltea erabaki dute. Bertako kideek aitortu dute gogotsu ekin diotela lanari. Zabaldu duten lehenengo aste

### Zinearen barruan, erabiltzaileek derrigorrez ipini beharko dute maskara

### Sarrerako atea ohi baino lehenago zabalduko dute, jende pilaketarik egon ez dadin

honetan, aforoa %33koa izango da. Neurri horren eraginez, zinemako arduradunek sarrerak aurretik hartzea gomendatu dute. Euren webgunearen bitartez ([cinezugaza.com](http://cinezugaza.com)) zein kanpoan duten sarreraren makinan erosi daitezke. Gainera, sarrerako atea ohi baino lehenago zabalduko dute, jende pilaketarik egon ez dadin. Ordutegiak ere doitu dituzte, aretoetako sarrera-irteeretan jendeak bat egin ez dezan. Zinearen barruan, erabiltzaileek derrigorrez ipini beharko dute maskara. Higiene neurriak zorrotz dituztela azaldu dute. Gaurkoa izango da zinemak normaltasun berriari egingo duen lehenengo proiektzio eguna. Sarrera bakoitzak bost euro balio du.



LIBE  
MIMENZA CASTILLO  
ELORRIO, kazetaria

## Zuriak gara beltzen artean

#BlackLivesMatter ez da Spotifyko kantu zerrenda bat. A! Itxoin, bai, hori be bada! Kapitalaren musika merke eta oportunoa ozen errebolta handirako. Iraultza azalean dezibelio altuan sentitzeko. Katxondo jartzeko gaitu suak, ezta? Zuotako zenbat bihurtu zarete egunotan norbere etxeko pantera beltz? Plataformen kapitalismoan

#blackouttuesday egiten hasita, Zara ere batu da kanpaina biralera: *We stand for equality* lotsabako bat. Elitearen zuriketa. Morea, berdea edo beltza. Ortzadarraren kolore guztiak garbitzeko prest. Edozer da zuria lixiba apal guztiak hustutako herrian.

Esna gaitzen behingoz: justizia soziala ez da premium harpidetza bat legez erosten. Ez dago hilean 9,99 euroren trukeko

arrazakeria gabeko jendarterik.

Eta euskaldunok ez gara salbuespen. Normal eta normatiboki arrazista gara gu ere.

Oso arrazista delako Eroskiko harategian lan egiten duen neska beltzari zure 100 gramo indioilar gatz gabe erdaraz eskatzea zure aurreiritzi bildumak euskararik ez dakiela diotsulako.

Eztabaida, beraz, ez da gure horma digitaletan orban beltz

bat argitaratu bai ala ez. Benetako auzia, merkadoteknia kanpainez harago, errotuta dugun ekidistantzia sasineutrala alboratzea da. Problema problematizatzea. Norbere egitea. Entzutea eta ikastea. Ikusgarri egitea eta posizionatzea. Pribilegio zuriaren talaia erosotik altxatzen hastea.

Ez dago, inolako esfortzurik gabe, gure marko mentalak garbituko dituen lixibarrik.

# Iurretako Olaburu pilotalekuari Kepa Arroitauregi izena ipintzea eskatu dute herriko hainbat elkartek

Herri ekimenetik irtendako proposamena da eta asteen sartu dute eskaria udaletxean



Iurretako Olaburu pilotalekuak hainbat txapelketetako partiduak hartzen ditu urtean zehar.

## IURRETA • JOSEBA DERTEANO

Kepa Arroitauregi pilotaleku munduari egindako ekarpenaren garrantzia nabarmendu gura dute Iurretako hainbat herritar eta elkartek, eta, omenaldi modura, gaur egun Olaburu izena duen frontoiari Kepa Arroitauregi Pilotaleku izena ipintzea eskatu dute. Eskakizunaren sinatzaileek azaldu dute herri ekimenetik irtendako proposamena dela, eta Iurretako hainbat herritarrena izan dela ideia. "Pilotan zein herrigintzan, arlo askotan eginiko lanagaitik merezi du Kepak herriaren errekonozimendua", azaldu dute ohar batean. Maila profesionaleko pilotaleku egindako lana, trinketearen egindakoa, gazteei eskainitako laguntza eta emakumeen pilota bultzatzeko lana aipatu dituzte, besteak beste, errekonozimendu modura.

Kepa Arroitauregi izenak eta berak egindako lanak denboran iraun dezaten gura dute eskariaren sinatzaileek. "Gure haurrek, etorkizuneko pilotari gazteek, jakin dezaten nor izan zen Kepa Arroitauregi Egaña. Bere ondarearen lekukoa, eskurik esku bizirik mantendu dezaten", adierazi dute.

Honako elkarte hauek babestu dute eskaria: Iurretako kofradiek, Iurretako pilota eskolak, Maiztegi eskolako gurasoen elkarteak, Beti-

bizi abesbatzak, Oromiñoko auzo elkarteak, Oromiñoko jai batzordeak eta Iurretako jai batzordeak.

## Asier Aspurren mezua

Aldi berean, pilota munduari Arroitauregi gogoratzen jarraitzen du. Asier Aspuru pilotariak, esaterako, gutun hunkigarri bat argitaratu du [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean. "Zuk itxitako hutsunie betetzie

**A.Aspuru: "Denborarik ez euen lekutik ataritzen zendun tartetxo bat, trukien ezer eskatu barik"**

ezonekue ixengo dan arren, zuk landatu zenduzen hazixek Euskal Herriko frontoi eta trinketietan loratzeko asmoz jarraituko dogu lanien", idatzi du pilotari abadiñarrak. Bere pilotari ibilbideko une garrantzitsuetan Arroitauregi beti alboan izan zuela gogoratu du. "Neure bizitzako txapelik politena zuri eskerrak irabazi neban, baina ordureko lagun bat aspaldi irabazitte neuken. Ez dau-eta hori baino txapel ederragorik. Denborarik ez euen lekutik ataritzen zendun beti tartetxo bat, trukien ezer eskatu barik biher ebanari laguntzeko".

# Plazak aldarriz betetzeko aukera izango da domekan, Durangon, Elorrion eta Abadiñon

Hamaika Gara mugimenduak deitutako ekimena Gure Eskuren bitartez gauzatuko da herrietan

## DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO

Gure Esku dinamikatik jaio zen Hamaika Gara mugimendua, eta gaur egun 24 eragilek osatzen dute. Martxo hasieran, etorkizun politikoa erreferendum bitartez erabakitzearen aldeko sinadura bilketa bat abiatu zuten, baina osasun krisia dela-eta ekimen hori ezingo dute orain gauzatu. Hala ere, gaur egungo egoerak gizartearen "ahuleziak muturrera" eraman dituela iritzita, ondorio horiei "Euskal Herritik eta denon artean" erantzuteko

teko une aproposa dela uste dute, eta deialdia egin dute domeka honetarako. Euren aldarrikapenak kartoietan idatzi eta domekan plazetara eramateko eskatu diete herritarrei. Durangaldeari dagokionez, Durangon, Abadiñon eta Elorrion gauzatuko dute ekimena,

**Hiru herrietan 12:00etan ipini dute ordua. Batutako aldarriekin argazki bat aterako dute**

Gure Esku dinamiken bitartez. Hiru herrietan 12:00etan ipini dute ordua. Durangon, Pinondo plazan batuko dira; Elorrion, Herriko Plazan; eta Abadiñon, Zelaietako Txanpota Plazan.

Gura dutenek euren aldarriak idatzita eraman ditzakete. Aldarriak bertan idatzeko aukera ere eskainiko dute. Batutako aldarri guztiekin argazki bat aterako dute. Ezarrita dauden segurtasun neurriak errespetatuz gauzatuko dute ekimena.

hitz

artekalea 23, durango  
946 810 776  
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1#

MIÑAN  
Amets Arzallus & Ibrahima Balde  
(Susa)

2#

AITAREN ETXEA  
KARMELE JAIKO  
(Elkar)

3#

AMEK EZ DUTE  
KATIXA AGIRRE  
(Elkar)

4#

ITURRIA  
UNAI ELORRIAGA  
(Susa)

5#

ZENDABALITZ  
ERIKA ELIZARI  
(Elkar)

## 2020KO AURREKONTU PARTEHARTZAILEAK

II.Fasea



### PARTE HARTZEKO IRIZPIDEAK ETA ARAUAK

- Gogokoen ditugun 4 proiektuak aukeratu behar dira.
- Pertsona bakoitzak behin bakarrik parte hartu ahaliko du.
- Osatu gabeko edo erreplikaturako galdetegiak antzemanaz gero, ezeztatuko dira.

### NORK HAR DEZAKE PARTE?



Iurretan errolatutako edozein pertsonak, 16 urte baino gehiago izanez gero.



**EKAINAREN 4AN PHOTOCALL BAT EGONGO DA PARTE HARTZEN DUZUENONTZAT. ANIMA ZAITEZ!!**

### PARTE HARTZEKO BIDEAK

#### AURREZ AURRE

- Inprimakia HAZen sarreran kokatutako postontziaz utzi
- Hainbat saiotikitan dauden kutxak:
  - Farmazia: Bixente Kapanaga 3
  - Harategia: Fray Juan Askondo 1
  - Okindegia Ogien artean: Bixente Kapanaga 15
- Informazio karpak: Ekainaren 4an, Dantzari auzunean 11:00etatik 14:00ak arte eta 16:00etatik 19:00ak arte.

### 50.000EKO AURREKONTUA HAUTATUTAKO PROIEKTUETARAKO

### KONTSULTA ITZAZU PROPOSAMEN GUZTIAK UDALAREN WEBGUNEAN!!

Gainera, ekainaren 9an, pertsona bat 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara pasatuko da herriko auzotatik, informazioa emanez eta parte hartzea erraztuz.

#### ONLINE:

- Udalaren webgunean [www.iurreta.eus](http://www.iurreta.eus) prestatutako formulario digitalaren bidez.
- Galdetegia QR Kode honetatik sartuta.



### NOIZ ARTE PARTE HARTU DEZAKET?

Parte hartzeko epea ekainaren 1etik 14ra arte izango da.



# “Azken partida dugu selektibitatea, baina denok ez goaz kondizio berdinetan”

Ibaizabal Ikastolan Batxillergoaren bigarren maila amaitu ondoren, Mainerrek eta Anek selektibitateari aurre egingo diote



**Ane Martinez Arrieta eta Maider Zubizarreta Malaxetxebarria**  
2. Batxillergoko ikasleak  
Durango | 2002

**DURANGO • AITZIBER BASAURI**

**Anek kirolean espezializatutako Magisteritza ikasketak egin gura ditu, eta aurrerago Soin Hezkuntzako Euskal Erakundearen matrikulatu. Mainerrek ez du argi, itxialdia horri buruz gogoeta egiteko baliatu duen arren. Biak selektibitatearako indartze eskoletara joango dira, azterketa orokorrak gainditu ondoren.**

**Zelan hartu zenuten aurrez aurreko eskolekin hasteko albistea?**

**Maider Zubizarreta:** Harrituta. Baina sentitzen nuen aurrez aurreko kontaktua horren premia nuela, arriskuak hor jarraitzen zuela ikusi arren. **Ane Martinez:** Gogoz, baina ardurata. Hasieratik gura izan dut ikas-

tetxera bueltatu, baina presazko itzulera iruditu zitzaidan.

**Azkenean, ez duzue aurrez aurreko eskolarik. Ez dira baldintzak bete?**

**A.M.:** Batxilergoko 2. mailakoak bakarrik hasita bete daitezke. Baina hainbat herritatik datoz ikasleak; batzuk autobusean, denak batera.

**M.Z.:** Egun batetik bestera etorri da dena, eta ezustean harrapatu gaitu. Denbora behar da dena prestatzeko, eta horregaitik ez gara bueltatu.

**Martxotik hona sarean jarraitu diozue ikasturteari. Zelan eraman duzue?**

**M.Z.:** Gogorra izan da. Osa zaila da %100ean adi egotea, leku berean zazpi orduan pantailari begira zaudenean. Gainera, norbere kabuz lan egitea eskatzen zaigu askotan, pan-

taila baten aurrean. Astuna izan da eguneroko lana. Irakasleek eskolak ondo prestatu arren, lanaren zati handi bat gure gain gelditu da.

**A.M.:** Oso zaila egin zait. Psikologikoki oso astuna. Jendearen kontaktua fisikoa behar izaten dut nik, eta egunero zazpi orduan pantaila bati berba egiten egon naiz. Hori

“**Irakasleek eskolak ondo prestatu arren, lanaren zati handi bat gure gain geratu da**”

MAIDER ZUBIZARRETA

bai, asko eskertu dut eguneroko ordutegiagaz jarraitzea.

**Uztailen selektibitatea duzue eta azterketa indartze eskoletara bueltatuko zarete. Bueltatze beharri zana sentitu duzue?**

**Biak.:** Bai. Ikaskideak ikusteko, eta, batez ere, haria ez galtzeko. Izan ere, sarean bada ere, eskolara etorriko bagina lez jardun dugu.

**Egoera ikusita, urduri zaudete?**

**M.Z.:** Oso estresantea da Batxillergoko ikasturte amaiera hau. Aurten, dena atzeratu da eta denbora gehiago dugu lan egiteko, ikasteko ere bai. Oraingoan, lasai nago.

**A.M.:** Ez dakigu zelan egingo dugun, non, eta horrek ezinezona sortzen dit. Hilabete pasatxo geldi-

tzen da oraindino, eta horrek eta irakasleen prestutasunak lasaitu egiten naute.

**Kutsatzeko beldurra sortu zaizue?**

**A.M.:** Bai. Asko pentsatu dut horretan, hasieratik. Gerta liteke azterketa baino 15 egun lehenago kutsatzea eta ezin izatea azterketa egin.

**M.Z.:** Bai, edozein momentutan kutsatu gaitezke. Kalera irtenez gero, jendez inguratuta gaude. Azterketan neurri guztiak beteko dira, eta horrek ez nau larritzen.

**Kondizio berezietan egingo duzue selektibitatea. Etorkizun akademikoan eragin dizuela uste duzue?**

**M.Z.:** Bai. Ikasturte amaiera eta azken hiruhilekoaren ebaluaketa ikastetxe bakoitzaren esku utzi dituzte, eta bakoitzak bere irizpideei

“**Ikastetxeetan eszenario asko izan dira eta argitu bako zalantza asko ditugu**”

ANE MARTINEZ

jarraitu die. Denontzat berdina den proba batean lehiatuko gara, baina kondizio desberdinetan. Batzuk ebaluatu gaituzte, eta beste batzuk ez, adibidez. Azken partida dugu selektibitatea, baina denok ez goaz kondizio berdinetan. Ikasteko denbora gehiago dugu, eta pentsa liteke notak igo egingo direla orokorrean.

**A.M.:** Ikastetxeetan eszenario asko izan dira eta zalantza asko ditugu.

**Zelan aurrekusten duzue iraila?**

**A.M.:** Oso garrantzitsua da etapa bat amaitzea berria hasi aurretik, eta sentsazioa dut etapa hau ez dudala guztiz amaituko. Ematen du ez dugula ikasbidaiarik izango, agurrik ere ez. Irailean ere sarean hasiko garela diote. Bada, ematen du etapa berria ez dudala benetan hasiko. Psikologikoki oso astuna da, ziurgabetasun handikoa. Ikasle bakoitzak egoera desberdina bizi du.

**M.Z.:** Surrealista da dena. Orain artekoa amaitu barik, antzera batean hasiko diogu bide berriari. Etapa berri bat, mundu berri bat, eta bali-teke etxetik bizi behar izatea.

**anboto** ▶

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2020ko ekainaren 5a  
18. urtea - 810. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale

2015 **Bikam**  
BIZKAIA

PEFC  
www.pefc.eu

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

# Osasun krisia hasi zenean agindutakoa betez, Ruben Gorospe Tourmalet mendatea bizikletan atzerantz igotzen ahaleginduko da, irailean

Koronabirusaren eraginez azken hileetan gehien sufritu dutenei eskainiko die saiakera txirrindulari ohi mañariarrak

**MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO**

"Egun konplikatu hauetan aha-  
legin handia egiten ari gara eta  
ospitaletan lan egiten duten langile  
denengaitik, mendate bat bizikle-  
tan atzerantz igotzeko konpromi-  
soa hartzen dut, egoera hobetzen  
denean. Adineko pertsoneri ere  
eskaini gura diet, gehien pairatzen  
dutenak direlako". Ruben Gorospe-  
pek martxoaren 28an idatzi zuen  
mezu hori bere sare sozialetan, eta  
asmoagaz aurrera jarraitzen duela  
iragarri du orain. Tourmalet da au-  
keratu duen mendatea eta irailean  
egingo du Pirinioetako mendi miti-  
koa igotzeko saiakera.

Erronka iragarri zuenean, as-  
kok Urkiola mendatea proposatu  
zioten, baina erronka hori eginda  
dauka. "18-19 urte nituenean igo  
nuen Urkiola atzerantz. Hori egin-  
da daukadanez, beste bat aukera-  
tzea erabaki nuen eta Tourmalet  
aproposa iruditu zitzaidan daukan  
historiagaitik", kontatu du txirrind-  
ulari ohi mañariarrak.

**Taldeko bazkarian**

Orain lau-bost urte igo zen berriro  
bizikleta gainera postura arraro  
horretan. Cafés-Baqué txirrindulari  
taldeko laguntzaile zebilen orduan,  
eta Bizkaiko Arrieta herrian talde-  
ko bazkari bat zuten. "Behetik gora  
pare bat kilometro daude eta atze-  
rantza igotzea erabaki nuen. Hori  
izan zen horrela ibili nintzen azken  
aldia", gogoratu du.

Tourmalet, jakina, beste mundu  
bat izango da. "18 bat kilometro  
dira. Orduko sei kilometro inguru  
eginez gero, atera kontuak. Hiru  
bat ordu izan daitezke. Gainera,  
atsedenik ez duen igoera da", gai-  
neratu du. Itxialdiaren ondoren,  
hasi da apurka bizikletan ibiltzen.  
"Lehenengo, aurrerantza, sasoi-  
a hartzen joateko, eta gerora hasiko  
naiz atzerantz entrenatzen", argi-  
tu du.

**Umea zenean**

Gorospek umetatik daki bizikletan  
atzerantz ibiltzen. Zortzi bat urte



Orain lau bat urte, Cafes Baqueko laguntzaile zebilela ibili zen azkeneko bizikletan atzerantz.

**"18 bat kilometro dira.  
Orduko sei bat kilometro  
eginez gero, hiru bat ordu  
izan daitezke"**

izango zituen lehenengoz probatu  
zuenean. "Sasoi hartan bazegoan  
persona bat Urkiola domeka guz-  
ti-guztietan atzerantz igotzen  
zuen. Kurioso iruditzen zitzaidan  
eta orduan hasi nintzen probatzen",  
gogoratu du. "Gainera, gogoan dut,

pertsona horrek Tourmalet igo-  
tzeko saiakera ere egin zuela bere  
sasoiaren, baina haizeak bota egin  
zuen eta ez zuen lortu goraino hel-  
tzea. Beraz, nire saiakeran haizea  
kontuan hartu beharreko faktorea  
izango da", azaldu du.

Oñati gestio  
heziketa

**MGEP**

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP



2020-2021

Goi Mailako  
**HEZIKETA ZIKLOAK**

Izen-ematea

Ekainaren 1etik 19ra

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa

MGEP

- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

[www.mondragon.edu/ogh](http://www.mondragon.edu/ogh)  
[rigarza@mondragon.edu](mailto:rigarza@mondragon.edu)  
943 71 80 09

[www.mondragon.edu/gmhz](http://www.mondragon.edu/gmhz)  
[onarpena.lhm@mondragon.edu](mailto:onarpena.lhm@mondragon.edu)  
664 298 704 • 664 298 683

# “Durangaldeko turismoak bultzada bat behar du industriak galtzen duen apurra berreskuratu eta lanpostuei eusteko”

Jasone Gezuraga Garaiko landetxeko arduraduna da. Koronabirusak turismoa eraldatuko duela-eta, ideia berriak sortzeko premia dagoela dio



**Jasone Gezuraga Uriarte**  
Garaiko aterpetxeko arduraduna

**Larrabetzu | 1974**

eragiten dio. Lehengoan, Durangaldeko turismo mahaikoekin berba egin nuen, eta, aurreikuspenen arabera, tabernen %20 edo %25ek zarratuko ei dute negozioa koronabirusaren eraginez. Itxi, betiko. Horrek esan gura du taberna batzuk beteta egongo direla, baina beste batzuek ezin izango diotela gastuei, alokairuei eta abarrei aurre egin. Abadiñon 1.500 langile inguruko enpresak daude. Hori ahultzen bada, ingurune guztiari eragingo dio. Denok bizi gara industriari eskerrak, neurri batean.

**Garaiko landetxean zelan egokituko zarete normaltasun berria deituriko horretara?**

Ez dugu berdin jarraituko. Koronabirusari lotutako neurriak ahalik eta ondoen bete ditugu. Baina hori aparte utzita, proiektu berri batean sartuko gara. Landetxea izango da abiapuntua, eta beste bide batzuk ere urratuko ditugu. Oraindino ezin dut zehaztasunik eskaini, baina etorriko dira berrikuntzak. Hartu-eman zuzena izan dugu bezeroekin, eta orain arte Durangaldetik kanpora bidali izan ditugu gauzak bisitatzen. Durangaldeari bultzada bat eman behar diogula esango nuke. Industrietatik galtzen dugun apur hori beste leku batzuetatik berreskuratu behar dugu, lanpostuei eusteko. Sormena behar da. Orain arte, etorri, lo egin, armosua hartu eta horretan gelditu gara. Aurrerantzean, sare bihurtu behar dugu denon artean.

**Kanpoan bidaiatzea exotikoa zaigu eta etxean bidaiatzea arrotz?**

Euskaldunok oraintxe hasi gara barne turismoa egiten. Ezagutzen dut jendea Gaztelugatxera orain bost hilabete edo urte bi joan dena lehenengoz. Berrogei urtetik gorako jendeaz ari naiz. Atzerritarrek badute Euskal Herrian bisitatu beharreko tokien argazki bat: Urdaibai, Arabako Errioxako upategi bat, Ipar Euskal Herria, Baztan, San Fermin jaiak..., baina beste eremu batzuk, Durangaldea esaterako, mendi izugarriak dituen, oharkabean pasatzen dira. Guk geure ingurua ezagutzen hasi behar dugu, gero besteei behar den moduan erakusteko.

**GARAI • EKAITZ HERRERA**

**Aurtengoari eutsi, eta, bitartean, datorren urtekoa lantzen hasi. Gezuragaren esanetan, horixe da turismoak orain behar duen ikuspegi. Durangaldean turismoari bide berriak zabaldu behar zaizkiola dio.**

**Ekainaren hasiera, eta uda giroa. Zelan baldintzatu ditu erreserbak koronabirusak?**

Landetxea martxoaren 16an zarratu genuen. Erreserbak jaisten hasi ziren, eta zerbitzu minimoak eskaini ditugu gerora. Ingurura lan egitera etorritako beharginak etorri izan dira aterpetxera. Orain, herritarrak berriro hasi dira erreserbak egiten, baina konturatu gara jendeak asko galdetzen duela. Orain arte galdetu ez digutena galdetzen digute: ea sukaldia erabili dezaketen, ea hozkailurik baden erabilgarri, inguruko jatetxeetan zein preziotako menuak dituzten... Duten kezka nagusia ekonomiko da.

**Herrialdetik irtetea orokorrean ezinezkoa denez, inoiz baino turismo lokalagoa lantzen zabilzate momentu honetan: turista bizkaitarrak, non eta Bizkaian.**

Bai, turista bizkaitarrak ditugu apopilo. Eta ospakizun bat egiteko arrazoiak direla-eta etortzen ari dira. Batzuk ezkontza urteurren bat ospatzera etortzen dira. Beste batzuk urtegun bat ospatzera. Hiru hilabete ezer ospatu ezinda pasatu ondoren, honako egonaldiak ospatzea erabaki du hainbatek.

“**Durangaldeko turismoari eutsi gura badiogu, aurtengoa barik datorren urtekoa lantzeari ekin beharko diogu**”

Astean zehar mugimendu gutxiago dago, baina baditugu deiak, badago interesa. Oraingoz, horregaz eutsiko diogu.

**Koronabirusak mugikortasuna mugatu duen neurri berean ito du turismoa. Aurrerantzean, aldatu egingo da turismoa ulertzeko dugun kontzeptua?**

Turismoa aldatu egingo da. Guk ekainean jasoko ditugun bisitak behintzat tokikoak izango dira, euskaldunenak, harik eta mugak zabaltzen dituzten arte. Durangaldea toki industrialia da, automozioari lotutakoa, eta dagoeneko bolo-bolo dabil bertako ekoizpena asko jaitsiko den errezeloa. Orain zer egin behar dugun? Eutsi, eta inguruan ditugun turismo sektoreei lagundu. Aurtengoa ez da turismoan pentsatzeko urtea izango. Durangaldeko turismoari eutsi gura badiogu, aurtengoa barik datorren urtekoa ondo lantzeari ekin beharko diogu. Turismo lasaia izango da aurtengoa, familia girokoa.

Datorren urtean eskaintza berriak prestatu eta atzerriko turismoa erakarri beharko dugu.

**Durangaldeko automozioa aipatu duzu. Aldagai edo indikadore balio-garria da turismoaren sektorea zelan dagoen ikusteko?**

Baietz esango nuke. Automozioa Durangaldean sartu zenean, gora egin zuen ekonomikoki. Komertzio txiki asko dugu eta Durangok azpiegitura handia du zerbitzuetan. Batek lana galdu badu edo negozioa zarratu badu, horren ondokoari ere

“**Durangaldeko turismo mahaikoekin berba egin nuen eta tabernen %20-25ek zarratuko ei dute negozioa**”



## IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

**ZARATE ELEXPE**  
E R A G I L E A K

Tel.: 946 816 673  
[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)

# Koarentenaren ondoren, bizikleta zaharrak konpondu eta berriro pedalei eragitea erabaki du jende askok

Bizikleta dendetako biltegiak beteta daude. Batzuk atera ahala, konpondu beharreko beste batzuk heltzen zaizkie. Alternatiba eskasian, bizikleten aldeko apustua egin dute askok

## BIZIKLETA • JOSEBA DERTEANO

Itxialdiaren osteko deseskalatze prozesuan, nabarmen hazi da bizikleta erabiltzaileen kopurua. Eskualdeko bizikleta dendak bisitatzea besterik ez dago horretaz jabetzeko. Biltegiak konpondu beharreko bizikletez beteta, galtzak bete lan dute. Bizikleta elkarteetako ordezkariak harrিতa daude, baina itxaropentsu fenomeno berriaren aurrean, eta euren buruari galdetzen diote mugikortasun eredu jasangarriago baterako beste pausotxo baten atarian ote gauden ala gaseosa efektua besterik ez ote den.

Itxialdi-ostea trastelekuan zeukaten bizikletari hautsa kentzeko une aproposa dela iritzi diote askok. Orain hilabete denda zabaldu zutenetik, bizikletak konpontzeko eskaria bikoiztu egin zaie Traña-Matienako Elorriaga dendan. Beste hainbeste gertatzen zaio Iurretako Undarri Bike&Snow dendari ere. Telefonoari erantzuten eman zituen deseskalatze faseko lehenengo egunak. Durangoko hainbat bizikleta dendek ere lanez lepo dabiltzala baieztatu diote ANBOTOrri.

Elorrioko Txirrindulari Elkarte-ko presidentea den Joseba Gorostiza berehala jabetu zen fenomenoaz. "Elorrion bizikletan ibili ohi garenok elkar ezagutzen dugu, eta hasierako egunetan hauxe komentatzen genuen geure artean: 'Baina zenbat jende dabil bizikletan!'. Ohiko kopuruaren bikoitza bai, gutxienez. Nik ez dut horrelakorik sekula ikusi", dio.

## Arrazoiak

Baina, zergaitik hazkunde hori? Sigi-sagan zikloturista elkarte-ko Patxi Torregrosaren ustez, askok "abagune bat aprobetxatzeko aukera" ikusi dute. "Konfinamenduko neurriak apur bat leundu zituztenean, ez zegoen beste aukera handirik, eta gordeta zituzten bizikletak atera zituzten kalera irten ahal izateko. Arrazoi horixe okurrizten zait", esan du. Gorostizaren ustez, taldekako kirolak bertan behera geratu diren honetan, "korrika

egitea, oinez ibiltzea edo bizikleta hartzea" ikusten ditu kirola egiteko alternatiba nagusiak. "Lehenago bizikletan ibili izan den eta berriro probatzea erabaki duen jendea da asko", uste du. Korrika egitea ala bizikleta hartzea alderatuta, Zior-tza Isasi txirrindulariak bigarren

**J.Gorostiza. "Lehenago bizikletan ibili den eta berriro probatzea erabaki duen jendea da asko"**

**Z.Isasi: "Korrika egitea ez da denentzat egokia: artikulazio eta muskuluek gehiago sufritzen dute"**

aukerari ikusten dizkio abantailak: "Mundu guztiari ez zaio korrika egitea gustatzen, eta, gainera, denentzat ez da egokia: artikulazioek eta muskuluek gehiago sufritzen dute".

Bizikleta motei dagokienez, mendikoak dira nagusi. "Ez da harriztekoa", Gorostizaren iritziz, mendiko bizikletak "zoru mota denetarako aproposak" direlako. "Berdin balio dute mendira joateko zein herrian ibiltzeko", gaineratu du.

## Aurrera begira

Denboran iraungo duen joera da ala egun bateko lorea? Torregrosaren ustez, oraindino goiz da ondorioak ateratzeko: "Itxaron eta ikusi egin beharko dugu erabateko normaltasunera bueltatzen garenean zer gertatzen den. Orduan ikusiko dugu benetako errealitatea zein den". Hala ere, ikuspegi positibotik baloratu du egoera. "Bizikleta hartzea erabaki duten ehun pertsonatik hogeiren batek ohiturari eusten badiote, bada, horixe irabazten irtengo dugu", adierazi du. Gorostizak ere gogoeta berdintsua egin du: "Ikusi egin beharko da zer gerta-



Mendira joateko ez ezik, bizikleta herri barruan mugitzeko alternatiba moduan ere ikusi dute askok.



Undarri Bike&Snow dendako mostradorea konpondu beharreko bizikletez beteta; etengabe heltzen zaizkie eskariak.

tzen den, baina jendeari bizikletan ibiltzea gustatzen zaiola ikusi dugu behintzat, eta alternatiba moduan ikusten dutela".

## Bidegorri sarea

Mugikortasun mota horri bultzatxo bat emateko unea izan daitekeela uste du Gorostizak, eta bide horretan urratsak ematera animatu ditu bai erakundeak eta baita norbanakoak ere. "Geugandik hasita, kontzientziazio edo mentalitate puntutxo bat falta zaigu oraindino. Mendira joateko ez ezik, bizikleta herrian mugitzeko ere garraibide egokia dela barneratu behar dugu", esan du. Hala ere, itxaropentsu egoteko zantzuak ikusten ditu. "Iruditzen zait geroago eta jende gehiago dabilela bizikletan. Erosketak egite-

ko orduan ere, geroago eta gehiago ikusten ditut otzaradun bizikletak. Tira, bide onetik goazela deritzot", adierazi du.

Erakundeei bidegorri sareak "indartzeko" eskatu die, herriak lo-

**P.Torregrosa: "Ikusi egin beharko dugu egoera zein den erabateko normaltasunera itzultzean"**

**J.Gorostiza: "Bizikleta herrian mugitzeko ere garraibide egokia dela barneratu behar dugu"**

tzen dituzten bidegorriak, batez ere. "Leku askotan, zatika daude bidegorriak; hemen zati bat, han beste bat. Denei kohesio bat emango dien sarea falta da", adierazi du.

Koronabirusak eragindako krisiaren eraginez eskola kirola bertan behera geratu izana "pena handiz" darama Torregrosak. "Txirrindularitza-eskoletan dabilzan gaztetxoek ilusio handia izaten dute bizikletan ibiltzeko. Kirol honegaz gozatu egiten dutelako etortzen dira. Hor eten bat izateak pena handia ematen dit, baina, tira, dena ondo badoa, egoera normaltasunera bueltatzen denean izango dute aukera benetan gustuko dute hori praktikatzeko", adierazi du.



# “Ordutegi jarraiagaz gabiltza lanean, eskari guztiei erantzun ahal izateko”

Traña-Matienako Elorriaga bizikleta dendan bikoiztu egin zaie bizikletak konpontzeko eskaria, Oskar Elorriagaren esanetan



**ABADIÑO • J.D.**

**Zelakoak izan dira denda zabaldu osteko lehenengo egunak eta asteak?**

Hasieran hitzorduak ematen hasi ginen, baina, denboragaz, beharri-zanetara egokitu behar izan dugu. Orain ordutegi jarraiagaz gabiltza lanean, eskari denei erantzun ahal izateko. Hitzorduaren sistemagaz ezinezkoa da denera heltzea. Egocera normal bategaz alderatuta, bizikleta kopuru bikoizta dugu gaur egun biltegian.

**Zure ustez, zerk eragin du eskari kopurua horrenbeste handitzea?**

Luzaroan etxean egon eta gero, jendea aire libreko kirola egiteko gogoz dago eta bizikleta modu erraza da horretarako.

**Zein bizikleta mota ekartzen dizute gehien?**

Mendiko bizikletak, beste ezer baino gehiago. Hasieran herritik herrirako mugikortasuna mugatuta zegoen eta jende pilaketak gertatzen ziren. Hori ikusita, jendeak bere herriko mendietara joko zuen beharbada, espazio zabalagoen bila, eta mendiko bizikleta da proposena horretarako. Edozelan ere, mendiko bizikletak denerako balio du, mendian zein herrian ibiltzeko. Esaterako, egunotan guraso asko ikusten da euren seme-alabekin herri barruan bizikletan ibiltzen.

**Bizikleta mota kuriosoak ekarriko zizkizuten.**

Garaje edo trastelekuetan urte askoan egondakoak dira asko. Esatera-

ko, ekarritako bizikleta batek 40 bat urte ditu. Lehenengoetariko mendi bizikleta izango da. Batzuetan, bizikleta zaharrak eraberritzea erronka handia izaten da, kasu askotan ez direlako egiten bizikleta horiek behar dituzten ordezeko piezak. Konponketa bereziak dira eta ikasi egiten da.

**“Etxean luzaroan egon eta gero, jendea aire libreko kirola egiteko gogoz dago eta bizikleta modu erraza da horretarako”**

**Zer komentatzen dute bizikleten jabeek?**

Etxean hainbeste denbora eman eta gero, naturagaz gozatzeko gogoia dutela, eta urte askoan bizikletan ibili barik egon eta gero, aspaldiko sentsazioak berreskuratzen ari direla berriro. Azkenean, naturagaz gozatzeko aukera eskaintzen du.

# “Telefono deiak bata bestearen atzetik jasotzen nituen hasieran; ezin nuen beste lanik egin”

Iurretako Undarri Bike&Snow dendako Aitor Undagoitia lanez lepo ibili da azken asteetan

**IURRETA • J.D.**

**Zelakoak izan ziren denda zabaldu osteko lehenengo egunak?**

Telefono deiak bata bestearen atzetik jasotzen nituen hasieran. Ezin nuen beste lanik egin. Bizikleta bat konpontzen hasten nintzen bakoitzean... telefono deia, eta atzetik beste bat zain.

**Bizikletarako zaletasuna piztu zaie askori?**

Eskualdean beti egon da bizikletarako zaletasuna eta jende askok bazeukan bizikleta bat etxean, baina ez zuen erabiltzen, mugikorren eta bizimodu digitalaren aroan bizi

garelako beharbada. Baina, konfinamenduan, antza, aspertu egin dira hainbeste Internetegaz, eta aspaldian erabili bako bizikletekin gogoratu dira. Une honetan, hoguei bat bizikleta ditut konpontzeko,

**“Konfirmenduan, antza, aspertu egin dira hainbeste Internetegaz, eta aspaldian erabili bako bizikletekin gogoratu dira”**

eta eurretari hamabi bat urteetan kamaretan gordeta egonikoak dira.

**Zer bizikleta mota ekarri dute gehien?**

Danerik dago. Proporzioan mendiko bizikletak ekarri dituzte gehien. Normala da, gehien saltzen den bizikleta mota delako. Errepidekoak ere konpondu ditut, baina gutxiago. Azken batean, mendiko bizikletak erabilera zabalagoa du: mendira joateko, herrian erosketak egiteko, familiagaz ibiltzeko...

**Aspaldi ikusi bako bizikletak ekarriko zizkizuten.**

Bai, ekarri didaten mendiko bi-



zikleta batek 35 urte ditu. Zahar-zahar dago eta danerik aldatu beharko diot: katea, gurpil-azalak, balazta-pastillak... Baina, aizu, jabea animatu egin da, bizikleta prest ipini gura du eta horretan nabil.

**Badago merkatuan pieza berririk bizikleta horientzat?**

Bizikleta zaharren eta berrien artean badago bateragarritasun bat, neurriak mantendu egin direlako. Normalean, piezak konpondu beharrean, berriak ipintzen dira.



**ERROTA**  
OSTATUA ATERPETXEA

Taberna zabalik dago 07:00etatik 23:00etara. Gosariak, pintxoak, entsaladak eta ogitartekoak. Merendolak. Terraza ederra, Tabira auzoaren erdigunean.

Intxaurren kalea 54 - Durango / Tel.: 946 216 021

## BIBLIOTEKAREN IREKIERA

Maiatzaren 25etik aurrera

- ITZULKETAK BUZOIAN**
- BIBLIOTEKARA SARRERARIK EZ**  
Momentuz ez da sarrera librerik egongo. Maileguak aldeztu aurretik eskatu beharko dira eta kultur ebeko ateak jasoko dira.
- MAILEGUEN ESKAERA**  
Maileguak telefonoz, Whatsapp-ez, emailaz edota online katalogoa erabiliz eskatuko ahal izango dira.
- JASOTZEKO ORDUTEGIA**  
Goizez (Asteleheneetik ostiralera) 10:00 - 13:00  
Arratsaldean (Asteratean eta osteguna) 17:00 - 19:00
- SEGURTASUN NEURRIAK**  
Eskarretako materiala higiegi jarraituz ontregatuko dugu

94 681 27 26 | 688 863 736 | biblioteca@iurreta.eus

**Iurreta**  
Eletzateko Udala



Jon Bastanteren postua Ibarra baserrian.

## Zornotzako herritarrek tokiko ekoizleengana jo dute konfinamenduan

Jon Bastante, Saioa Mantzisor eta Kepa Agirregoikoa. Bastantek ortuariak ekoizten ditu, Mantzisorrek okela eta Agirregoikoa esnekiak. Zornotzatik irten barik, hara hor menu osatu bat egiteko aukera ematen duten ekoizleak

### ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Jon Bastantek Ibarra auzoan lan egiten du, izen bereko baserrian. Ortuariak eta frutak ekoiztetik eta saltzetik bizi da. Iraunkor kontsumo taldean dago eta ortuariz zein frutaz betetako otzarak banatzen ditu bezeroen artean. Dena dela, bere baserrira bertara ere joan daiteke behar dena eskuratzera. Saioa Mantzisorrek Dudagoitia auzoan du bere lantokia, Billene baserrian. Ganadua gobernatzea du zeregin nagusia. Izan ere, okelatarako behiak eta txahalak hazten ditu, gero produktuak etxerik etxe banatzeko. Behikiz osatutako produktu-sortak banatzen ditu etxerik etxe, alde aurretik lotutako prezioan. Kepa Agirregoikoa Etxanon du lantokia. 'Errotik' izeneko jogurta

**Ekoizleek kezka dute eguneroko errutinara bueltatzeak orain arteko joera aldatuko ote dien**

eta gazta egiten ditu bere gaztandegian. Dendetan banatzen ditu esnekiak, baina badira gaztandegira bertara doazkion bezeroak ere.

Barazkiak eta fruta batek, okela besteak, eta esnekiak hirugarrenak. Hara hor Zornotzatik irten barik eguneko menu osatu bat jateko aukera eskaintzen duen hirukotea. Zornotzatik hasita, eta Zornotzan amaituta.

**Ekoizleek Etxanon, Ibarra auzoan eta Dudagoitia auzoan dituzte euren lantokiak**

Hirurak bat datoz kontu batean: bezero kopurua handitu egin zaie konfinamenduak iraun duen bitartean, baina zalantza dute joera hori mantenduko ote den herritarrek euren errutina bizkorrean bueltatzen hasten direnean. Tokiko ekonomia baten aldeko aldarria da euren. Txikitetasunetik gauza handiak egin daitezkeen erakuslea.



JON  
BASTANTE MORENO

Ortuari eta fruta ekoizlea

## “Lehen, 60-75 bat bezero genituen astero; orain 200 bat”

Jon Bastantek ortuariak eta fruta ekoizti eta oiloak hazten ditu Zornotzako Ibarra baserrian. Modu ekologikoan dena, eta 110 bat produktu barietate eskaintzen ditu. Produktu-sortak osatu eta otzarak unitateka saltzen ditu kontsumo taldeetan

### ORTUARIAK ETA FRUTAK • E.H.

**Herritarrek zelan erantzun diote tokiko ekoizpenari?**

Osasun krisialdia hasi zenetik, jende gehiago etorri da gugana. Ez dakigu supermerkatuetako ilaretan ez itzarotearren izan duten jokabide hori ala gure produktua hobea delako jo duten gugana. Baina bai, jende gehiago etorri da.

**Bezero gorakada hori kuantifikatzerik izango zenuke?**

Krisialdiaren aurretik 60-75 bat otzara banatzen genituen astero. Orain, 200 bat bezero ditugu. Otzarak banatzen ditugu kontsumo taldeetan, baina bezeroak baserrira bertara ere

etorri daitezke produktuak eskuratzera.

**Igoera nabarmena dirudi.**

Bai, igoera ederra izan da. Bezero berriei azaldu behar izan diegu gurea ez dela torloju enpresa bat, ortuak bere denborak dituela. Lau kontsumo talde ditugu eta sortu den azkenengo taldeak irailean jasoko ditu lehenengo otzarak. Oraingoz, ezin dugu bezero berririk hartu. Ezin gara denengana heldu.

**Bezeroen kopurua handitzea moda bat da, ala tokikoa baloratzen hasi garen seinalea?**

Esango nuke ez dela moda bat. Denerik dago, baina, orokorrean, iruditzen zait jendeak

“**Esango nuke ez dela moda bat. Denerik dago, baina, orokorrean, iruditzen zait jendeak barazki eta fruta freskoak gura dituela, zapoetsuak**”

barazki eta fruta freskoak gura dituela, zapoetsuak. Osasunari eta ingurumenari erreparatzen diote.

**Zein garrantzia du tokiko ekonomiak?**

Herriak bizirik mantentzeko bide bat da. Auzotarren artean indarrak batuta sendoago egin dugu aurrera.

## “Iruditzen zait bezero berrien zati bat gelditu egingo dela eta beste zati bat lehengo ohituretara bueltatuko dela”

Saioa Mantzisorrek behiak hazi eta okela-sortak banatzen ditu etxerik etxe. Dudagoitia auzoko Billene baserrian du lantokia. Bezeroek izandako jarreragaz pozik, orain fideltasuna landu gura du

**OKELA • EKAITZ HERRERA**

**Zelako eskaria izan duzue konfinamendu egunetan zehar?**

Herritarrek etxetik irteterik izan ez dutenez, eta guk okela etxerik etxe banatzen dugunez, bada, primeran. Ondo eraman dugu konfinamendua. Web orria dugu, eta horrek lagundu egin digu. Jendea web orrira sartu da, eta gure eskaintza ikusita erosketa egin du. Hamabost bat bezero berri egin ditugu, baina zaila da zenbaki zehatzak ipintzea. Orain arte hilean behin hutsik egin barik eskaria egin didaten bezeroak hamar bat dira. Baina badaude hilean bi edo hiru bider eskatzen dutenak, eta lantzean behin egiten dutenak ere.

**Beraz, pozik zaudete egunotan izandako erantzunagaz.**

Gure enpresa zein modutan ulertzen dugun kontuan hartuta, oso pozik gaude, bai.

**Jendearen etorrera hori egonkor mantenduko da aurrerantzean?**

Fideltasuna inportantea da. Osasun egoerak onera egiten duen neurrian, ikusteko

dago ea herritarrak lehengo ohitura zaharretara bueltatzen diren ala konfinamenduan izandako joerari eusten dioten. Hori da ekoizleok dugun zalantza nagusia.

**Bezeroek aurrerantzean izango duten joerari buruzko inpresio bat esatera ausartuko zinateke?**

Nire irudipena da egin ditugun bezero berrien zati bat gugaz egonkortuko dela, baina beste hainbat lehengo ohituretara bueltatuko dela. Azken batean, guk okela banatzen dugu. Okela hori etxeko izozkailuan sartu behar duzu, prestatuko duzun egunaren bezperan desiozto egin behar duzu, eta horrelako ohiturak arin ahazten direlakoan nago. Umeekin zaudete, atzera eta aurrera etxean, parkean, kalean... eta konturatzen zarenerako "Ene! Okela desioztea ahaztu zait" diozu, eta, azkenean, harategira jotzen duzu. Konfinamenduan denok etxean egon garenaz, ohitura horiek hartzea errazagoa zen. Orain, ez dakit. Edozelan ere, bezero berrien erdiari eusten badiogu, pozarren egongo gara.



SAIOA  
MANTZISIDOR ZILLONIZ

Behiak hazten ditu okelatarako



KEPA

AGIRREGOIKOA ETXEBARRIA

Esneki ekoizlea

## “Gorabehera nagusia eskoletan igarri dugu, han jogurtak banatzen genituen eta”

Agirregoikoa gaztandegia du Etxanon. 'Errotik' izenpean, jogurta eta gazta egiten ditu han. Produktuak bezeroei zein denbei helarazten dizkie, baina Etxanora bisitan doanak ere erosi ditzake.

**ESNEKIAK • EKAITZ HERRERA**

**Egunotan, badirudi jendeak ondo erantzun diola zuen eskaintzari.**

Bai. Azken batean, jendea herrian bertan egon da konfinatuta eta horrek eskuragarriago ipini ditu tokiko produktuak. Gehiago estimatu dira. Denbora gehiago izan dugu guretzat, errutinatik irten dugu, eta gogoan dut lehenengo fasean egon ginenean, 20:00etatik aurrera herritar asko etortzen zela honaino paseoan. Inguruak ikusita, bertako ekoizpenari gehiago erreparatu ziolakoan nago. Gaztandegira ere etorri izan da jendea.

**Kontzientzia gehiago hartu dugu?**

Gorakada igarri dugu, baina ikusteko dago jendeak zein jarrera izango duen errutinara bueltatutakoan. Betiko martxa bizkorra hartzen dugunean ikusiko dugu ea jendeak supermerkatu handietara jotzen duen ala denda txikietara zein ekoizleengana joanda egiten dituen erosketak. Gura nuke jendearen kontzientzia horrek irautea eta bertako ekoizleen lanaren balioaz jabetzea. Baina honako hau denbora tarte laburra

izan da kontzientzia sortu ahal izateko. Beharbada lagunduko du kontzientzia aldatzen hasteko. Bestalde, instituzioekin gertatu dena ere ikusi dugu, merkatu plazak zarratu direla ikusi dugu. Bartzuek izandako jarrera txarrak ekarriko zuen, beharbada, beste batzuen jarrera aldaketa. Kontsumitzaileak gertatzen ari denaz jakitun, ea gure garrantziaz kontzientzia hartzen duten.

**Maila pertsonalean, zelan eragin dizute gorabehera hauek?**

Izan dugun gorabeherarik handiena eskoletakoa izan da. Eskolak jogurtez hornitu izan ditugu, baina zarratuta egon direnez, hori igarri dugu gorabehera nagusia. Horren aurrean, etxerik etxeko banaketa egin dugu. Bestetik, dendetako kontsumoa asko igo da eta bezeroak honaino ere etorri izan zaizkigu. Merkatu berrira egokituta egin dugu aurrera.

**Zeintzuk dira jogurtez hornitzen dituzuen eskolak?**

Zornotzako Andra Mari, Karmelo eta Lauaxeta ikastetxeak. Baita Markina-Xemeingo Bekobenta eskola ere.

CERAMICAS  
**MACOBER**

ZERAMIKA ETA GRESA  
DEKORAZIOA ETA APAINKETA  
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m<sup>2</sup> BILTEGI - 800 m<sup>2</sup> ERAKUSKETA *Etzortzi eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 [www.macober.com](http://www.macober.com)

**BODEGUILLA**



TRANA-MATIENA  
Tel.: 94 681 43 85



OINETAKO PATOLOGIAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

**IMQ**

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404



**Gorka Ganso**  
Klowna eta Ganso &  
Cia-ko zuzendaria  
**Getxo | 1973**

## “Inprobisazioetan publikoa da gure gidaria; bere erreferentziarik barik salduta egongo gara”

Itzulerako baldintzek arduratzen duten arren, normaltasunez lan egitera bueltatzeko gogoz dago Gorka Ganso getxoztarra

**DURANGO • ARITZ MALDONADO**

**Lisboako (Portugal) antzerki jaialdi batean zela harrapatu zuen koronabirusak eragindako zurrunbiloak Gorka Ganso; Cecilia Paganini bikotekideagaz [bera ere antzezlea] eta familiagaz zegoen han. Ganso ikastaro bat eskaintzekoa zen Lisboan, eta Paganini ikuskizuna. Egoeraren eraginez, autoa hartu eta Durangora bueltatu behar izan zuten, gura baino lehen.**

**Zelakoa izan zen itzulerako bidaia?**

Agur jaiari geundela, neska espainiar batek mugak itxi behar zituztela aipatu zuen. Autoa hartu eta etxera bueltatu ginen, segituan. Gueuz heldu ginen, eta ezkutuan lez sartu ginen etxean. Shock moduko bat izan zen. Ez genuen inondik inora itxaroten, eta, gainera, gure ingurutik kanpora geunden, babesik barik.

**'Madriguera' websaila sortu duzue konfinamendu egoeran.**

Hasieran, egoera berria asimilatu behar izan genuen. Sare sozialak

bideoekin-eta bete zirela ikusi genuen, baina guk denbora gehiago behar izan genuen guztia ulertzeko, egoeraz kezkatzeko, haserretzeko eta abar, gure klown iragazkitik pasatu ondoren gizarteari itzultzeko. Aste honetan publikatu dugu azken saioa. Jendeagaitik balitz, aurrera jarraituko genuke, baina lan hau hobya baino ez da izan. Itxialdi sasoiak sormen artistikoa lantzen jarraitzeko aukera eman digu, niri *Madriguera*guz, eta Cecilia-ri *Aguante* irrati saioagaz.

Inguruko errealitateak kezkatu edo hasarrarazi egiten gaitu, eta bufoiak badu egiak botatzeko

“**Birusa lez, barrea ere kutsatu egiten da eta hurbiltasuna oso garrantzitsua da horretarako**”

gaitasuna, inor hasarrarazi barik, barrea eraginez. Ironiaz kargaturiko egiak botatzen ditu eta hori oiher egitearen modukoa da, lasaiago uzten zaitu.

**Bestalde, zelan eragin dizue osasun krisiak? Topaklown topaketak bertan behera geratu dira, adibidez.**

Topaklown bertan behera geratzea sekulako kolpea izan da. Ekonomikoki ere arazo bat da. Maiatzetik aurrera galdutako ikuskizunak ere ez ditugu errekuiperatuko. Zelanbait esateko, gure sektorea izoztuta geratu da. Ikusten dugu gizarte osoa martxan ipintzen ari dela. Gure kasuan, oster, ez da horrela gertatu. Zelan bueltatuko garen ikusteak ere larritzen gaitu. Zeintzuk izango diren baldintzak, zeintzuk izango diren beharrezko azpiegiturak, publikoagaz neurtu beharreko distantzia... Kontaktua eta hurbiltasuna oso garrantzitsuak dira guretzat; birusa lez, barrea ere kutsatu egiten da eta hurbiltasuna oso garrantzitsua

“

**'Alpha' egokia izango da bizi dugun egoeragaitik, beldurraren birusa ere hedatu delako**”

■

da horretarako. Detaile simple bat emango dizut: gure aurrean dagoen jendeak maskara ipinita badu, ez dugu jakingo barre egiten dabilen ala ez, eta gu salduta egongo gara horrela. Inprobisazioarako tarte bat dago gure lanean, eta momentu horietan publikoa bera da gure zuzendaria; berak gidatzen gaitu, eta erreferentzia hori barik galduta gaude.

**Hile hauek garrantzitsuak dira kale antzerkirako.**

Guk sektore publikoagaz lan egiten dugu, eta aurrean kultura sailek dirua dute. Durangon eta Elorrion, adibidez, udan zerbait egingo da. Ekimenak egingo dira kaleko bizi-atasuna berreskuratzeko. Arazoa

hurrengo urteetan egongo da. 2008an gertaturikoaren antzerakoa aurreikusten dut: inguruan sekulako krisia bazegoen ere, gure sektoreak eutsi egin zion, kultura arloek aurrekontuak zituztelako. Horren ondoren igarri genuen beherakada. Hala ere, antzerkia beti krisian dagoela esaten da. Seguruenik, beste ogibide batzuei dirua kenduz gero ez lukete jakingo zer egin, baina guk ezagutzen dugu prekaritate hori. Sormena lantzen duen ogibidea gara eta hori gure alde dugu.

**Urriari 'Alpha' estreinatuko duzue.**

Apiriletik entseatzeko egon behar genuke, baina, zorionez, nahiko aurreratuta geneukan dena. Lehenengoz, neu bakarrik egongo naiz taula gainean, Iñaki Santos musikariagaz batera. Bideo proiektioak erabiliko ditugu, lehenengoz hau ere, eta horiek bai landu ahal izan ditugu itxialdian.

Ikuskizun egokia izango da bizi dugun egoeragaitik, beldurra delako gai nagusia. COVID-19az gainera, beldurraren birusa ere hedatu da. Umeak garenetik, errekuenteak diren ametsak ditugu: jaustea, ihes egitea... Amesgaizto horiekin dramaturgia komiko bat egin dugu. Garrantzitsua da hori azpimarratzea, ez dugulako gure ardatza galdu. Dokumentazioa lantzen egon ginen sasoiari, *El nombre de la rosa* liburuan *El libro de la poética de Aristóteles* aipatzen dela ikusi genuen. Eta aipaturiko liburu horrek dio barrea beldurraren aurkakoa dela. Horregaitik desagerrarazi gura ditut botereak, erlijioak edo dena delakoak dibertimendua eta barrea, jendeak beldurra izan dezan, beldurraren eraginez errazagoa delako jendea kontrolpean izatea. Antzezlanen familia osoarentzat da egokia. Beti pentsatu izan dugu barrea gauza zuria dela, aseptikoa, baina emozio asko ukitzen ditu, eta barrearen bitartez pertsonen barrurako sarbidea topatu daiteke.

**'Madriguera'-n diozu errealitate berri honek aurrekoaren antz handia duela.**

**Ikasiko dugu zerbait honetatik?**

Ironia horren atzean egia handi bat botatzen dudala uste dut. Gizarte honetan, kultura eta hezkuntza ez dira behar den moduan zaintzen gizarte kritiko bat izateko, jakiteko zer gertatu den eta zergaitik. Tabernak zabaldu eta berehala, terrazetara jo dugu zorionaren bila, baina inork ere ez du egoerari buruzko kritikarik egin, eta gertatu dena eta gertatzen dabilena oso larriak dira.



## Botikak

**BARIKUA, 5** · 09:00-09:00

**BALENCIAGA**  
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San  
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**ZAPATUA, 6** · 09:00-09:00

**BAZAN DIAZ** Uribarri 5 - **DURANGO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

**DE DIEGO** Intxaurrenondo  
22. - **DURANGO**

**BALENCIAGA**  
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

**CAMPILLO** Montevideo  
etorb. 24 - **DURANGO**

**DE DIEGO** Intxaurrenondo  
22. - **DURANGO**

**EGUREN, ISABEL**  
Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

**JAIO-ABENDIBAR**  
Errekakale 6. - **ELORRIO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San  
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**MELERO, ROSA MARI**  
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

**GUTIERREZ, IBAN** Txiki  
Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

**IRIGOIEN** Bixente  
Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**DOMEKA, 7** · 09:00-09:00

**DE DIEGO** Intxaurrenondo  
22. - **DURANGO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**ASTELEHENA, 8** · 09:00-09:00

**SAGASTIZABAL**  
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San  
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**MARTITZENA, 9** · 09:00-09:00

**MUGICA** Andra Maria 9 - **DURANGO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San  
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**EGUAZTENA, 10**  
09:00-09:00

**BALENCIAGA**  
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San  
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**EGUENA, 11** · 09:00-09:00

**GAZTELUMENDI** J.A.  
Abasolo 2 - **DURANGO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San  
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA



**GOZATU**  
**GOZOTEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11 - **DURANGO**  
Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozotegia



Asteburu magikoa dugu aurretik. Gure txikiak urtebete eingo dau zapatuan. Zorionak, **Chloe**. Eta gure neska handiak 5 urtetxo. Zorionak, **Nare!** Etxekuen altxor handiena zarete! Ondo pasa!



Preparau zaittie, juntetan gaienien a lo grande ospatuko dogu eta. Mosu handi bana Otxandixora eta Zaragozara.



Zorionak, **Iker**. Ondo-ondo pasatu gaur zure urtegu-nean. Gora Athletic! leup!



Zorionak, **Enara**. Ekainaren 9an 9 urte egingo dituzu. Besarkada handi bat maite zaitugun guztion partez.

## Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 20° / 13° ☁️

ASTELEHENA 🌧️ 17° / 10° ☁️

EGUAZTENA 🌧️ 19° / 12° ☁️

DOMEKA 🌧️ 15° / 12° ☁️


MARTITZENA 🌧️ 18° / 11° ☁️

EGUENA 🌧️ 20° / 12° ☁️

**Estetika gida**  
anboto

**NUKLEO**  
ileapaindegia  
946 582 996  
Nizeto Urkizu, 14 behea  
ELORRIO  
Ile-apaindegia

**Ile-apaindegia**  
**IUNIK**  
ILEAPAINDEGIA  
Antso Estegiz, 1  
DURANGO  
Tel.: 946 216 491




www.plazanbazan.eus  
Egilea: Garbine Ubeda (Aiburri)



Sartu  
www.plazanbazan.eus  
web atarian eta  
denbora-pasa hauen erantzunekin  
batera beste hainbat jolas  
aurkituko dituzu.


## GameLujaren itzala

Zein da, zortzi itzal hauen artean, erdian dagoen gamelu xelebreatri dagokiona ?



## Urratsez urrats

Lagundu detektibeari arrastoa jarraitzen.  
Labirinto honetan, giza urratsak dituzten laukietatik joan behar duzu,  
ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina ez diagonalean.



## Hau anabasa



Maripurtzilek udalekura joan nahi du lagunekin, baina ez du bere gela inoiz txukuntzen eta orain ez ditu harako beharko dituen gauzak aurkitzen. Non ote dira...

- 1 Bainujantzia
- 2 Largabista
- 3 Argazki-kamera
- 4 Eskumuturreko ordulari gorria
- 5 Betaurreko laranja
- 6 Lotarako zakua

Hemen duzun saskiaren eta marrazkikoaren artean lau diferentzia daude. Zeintzuk dira?







**Ainara Ibañez  
Lusarreta**  
Mundubatdu2du  
Iruñea | 1981

## “Ideia bategaz hasten banaiz ere, duduak izaera propioa hartzen du”

Mundubatdu2du izenagaz, Ainara Ibañezek duduak edo panpinak sortu eta saltzen ditu

**DURANGO • AITZIBER BASAURI**

**Txiki-kong, Moriarti, Kamelot, Karakolof, Txiolin, Ulu, Kersus, Tripitaka... Ainara Ibañezek sortutako duduak dira. Urteetan Durangon bizi den iruñarrak inoiz azokaren batean salmahai bat ipintzeko ametsa du. Bitartean, mundubatdu2du@gmail.com helbidera idatzita egin daitezke eskaerak.**

**Zelan sortu zen zure eta duduen arteko hartu-eman?**

Gure amodio istorioa Erroman (Italia) hasi zen. Han oportetan geundela, artisautza azoka bat bisitatu genuen eta eskuz egindako forma eta kolore guztietako oihalezko katu polit-politak topatu genituen. Txundituta geratu nintzen panpinekin! Hiru erosi eta neuk ere egitea pentsatu nuen. Pizzikatu izan zen

eskuz josi nuen lehenengo dudu. Nire zaletasun berria ikusita, familiarak josteko makina oparitu zidan. Horrela jaio zen Mundubatdu2du.

**Nondik ateratzen duzu inspirazioa?**

Lankide batek panpinak egiteko patroien liburu bat, *Les doudous*, utzi zidan, eta han oinarrituta sortu nituen lehenengo duduak. Euskaraz frantseseko *doudou* berbaren baliokiderik (umeentzako panpin goxoak) ez genuela ikusita, hala izendatzea erabaki nuen. Orain, Interneten topatzen ditut gorputzen patroiak, edo nik diseinatzen ditut. Hortik aurrera, irudimenari ateak zabaldu eta probak egiten ditut oihal zatiekin efektu desberdinak lortzeko: begirada okerra, irribarre maltzurra, beso laburrak, belarri luzeak... Ideia bategaz hasten banaiz ere, duduak izaera propioa har-

tzen du. Amaitu arte ez dut jakiten zelakoa izango den laguntxo berria. **Duduekin patata tortilla edo maskarak egiteko tutorialak sortu dituzu, sare sozialetan zabaltzeko...**

Duduak bidaiatzera ohituta daude. Egindako bidaia bakoitzean dudu bat izaten dut lagun. Itxialdian kalera irteteko aurkerarik izan ez dutenez, bestelako jarduerak egin

“

**Sare sozialak asko gustatzen bazaizkie ere, asko falta zaie benetako 'influencer' bihurtzeko!”**

”

dituzte: magia-trukoak, marrazki-erakusketak, maskarak egiteko tutoriala... Bakoitzak bere zaletasun eta dohainak ditu eta sare sozialen bitartez erakusten ditut, sortutako bideoetan. Apurka-apurka sare sozialak konkistatzen ari dira: Facebook, Instagram eta Youtuben presente daude. Sare sozialak asko gustatzen bazaizkie ere, asko falta zaie benetako *influencer* bihurtzeko. **Umeek bakarrik ez, helduek ere atsegin dituzte duduak.**

Umeekin oso ondo konpontzen dira, eta lagun eta erosle batzuek umeentzat eskatzen dizkidate. Baina askok aitortzen ez badute ere, badakit horrelako panpinak helduoi ere asko gustatzen zaizkigula eta umei oparitzeko aitzakiagaz eramaten dituztela etxera (barrez).

**Desagertu izan dira inoiz...**

Hainbat sortu nituen Mikeldi taberna apaintzeko, bertako lagunak eskatuta. Han daude bezeroei ongi etorria ematen; eskura eta libre daude, eurekin jolasteko. Bihozgaberen batek Satantxo eta Koxk bahitu zituen. Dauden tokian daudela, ondo zainduko dituztela espero dut.

**Lau hortza**

Mikel  
Uriguena Ruiz  
irakaslea



**Déjà vu**

Artearen balioa neurtzea ez da erraza. Ezta adituak direnentzat ere. Abesti, margolan, poema, eleberrri edo pelikulen maisutasuna unean bertan atzemateari ia ezinezkoa deritzot. Nire uste apalean, beste irizpideen artean, denboran irauteko duten gaitasuna da artelanei beren balioa ematen dien ezaugarrietako bat.

Kontua da, aurreko ostira-lean, lanera kotxean nindoala, maiz entzun dudak diskoa jarri eta kantatzen nengibilen, hain ezaguna zitzaidan letrari erreparatu nionean. Automata baten tankeran abestu beharrean arreta jarri nuen entzuten ari nintzen horretan. Egiak bere burua saldu duela esaten ari zitzaizkidan, bai niri, Le-kunberriko mutilak.

Azken astean Durangon jazotakoari buruzkoa zirudien. Izan ere, erdi egiak eta gezurrak iritsi zaizkigu. Batzuek eta besteek garai bateko mamuak berpiztu eta kanpaina zikina bizi izan dugu. Talde beraren beste abesti batek dioen moduan, denak ez du balio. Irainek eta gezurrek ez lukete lekurik izan behar gure bizitzan. Ez delako etikoak; ez duelako ezer positiborik ekartzen. Eta zer esanik ez, kontrakoa dirudien arren, oraindik itxi ez diren zauriak zabaldu eta hautsak harrotzea beste arrazoirik ez dagoenean. Edo hori eginez, teoriarik izkutuak, baina praktikan denok ezagutzen ditugun helburuak lortzeko bada.

Zoritxarrez, abesti horren mezuak gaur bertan idatzia dirudi. Espero dut, urte batzuk barru, beste behin letrari arretaz entzuten diodanean, abestia zaharkitu dela pentsatzea. Ez dut berriro déjà vu-rik izan nahi.



**DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA  
CEPA DURANGO HHI  
Doako irakaskuntza ofiziala**

Laubideta kalea, 6 DURANGO · Tel.: 946 814 253  
www.epadurango.hezkuntza.net



### IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- Atzeritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua.
- Nazionalitate irakaskuntzak.

### IRAKASKUNTZA EZ ARAUTUA

- Unibertsitaterako sarbide probak.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa, frantsesa (hasiera maila).



**MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253**  
www.epadurango.hezkuntza.net

**MATRIKULA-EPEA: Ekainaren 15etik, 26ra**

**Matrikula egiteko ordutegia:**  
Astelehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00  
Ostiraletan: 09:00-13:00